

"Zerga edota Gizarte-aseguruen ordainketaren itzulketa"

Sustapenaren Lege-oinarriak

SUSTAPENAREN BALDINTZAK

BANCO BILBAO VIZCAYA ARGENTARIA, S.A. merkataritza-entitateak, egoitza soziala San Nikolas plaza 4, Bilbo helbidean eta IFK zenbakia A48265169 izanik (aurrerantzean, "BBVA"), honako sustapen hau antolatzen du: "ZERGA EDOTA GIZARTE-ASEGURUEN ORDAINKETAREN ITZULKETA" (aurrerantzean, "Sustapena"), zeina honako lege-oinarri hauen (aurrerantzean, "Lege-oinarriak") arabera arautuko baita.

1. Zertan datza?

Sustapen honen helburua da bezeroei alta ematea online kanalean, baita zordunketak helbideratzea ere (aurrerantzean, "**Zordunketak**"), zergak eta/edo gizarte-asegurua ordaintzeko lotuta. Lege-oinarri hauetan zehazten diren baldintzak betetzen badituzu, hoberi bat (aurrerantzean, "**Hoberia**") lortuko duzu. Era horretan, 120 € gordin (97,20 € garbi) ordainduko dizugu hileroko, gehienez, Sustapenera atxikitzen zarenetik BBVAko kontuaren bidez hileroko ordaintzen dituzun zerga edota gizarte-aseguru guztiengatik, aurrerago zehazten den moduan eta gehienez ere ondoz ondoko 6 hilabetetan (aurrerantzean, "**Hoberi-aldia**"). Hala, hoberiarengatik 720 € gordin (583,20 € garbi) abonatuko dira, gehienez jota.

Hoberia jasotzeko eskubidea ematen duten BBVAko kontuaren bidez helbideratutako eta zordundutako zergak eta gizarte-asegurua honako hauek izan behar dira:

Sustapenerako eskubidea ematen duten zergak/zordunketak:

- Estatuko, erkidegoko eta tokiko zergak

Sustapenerako eskubidea ematen duten gizarte-asegurua:

- Gizarte Segurantzaren zordunketak
- Gizarte-aseguruen zordunketak
- Gizarte Segurantzako kuotak - Erregimen Berezia
- Gizarte Segurantzako kuotak - Erregimen Orokorra
- Elkargo profesionalaren zordunketak

Hoberia jaso dezaketen Zordunketa helbideratuen hoberia zehazteko, hauxe ezartzen da:

- Aplikatzeko dituzten zordunketen baturaren zenbatekoa 120 € edo gehiagokoa bada, emango den hileroko hoberi gordin 120 €-koa izango da.
- Aplikagarriak diren hileroko zordunketen baturaren zenbatekoa 120 € edo gutxiago bada, emango den hileroko hoberi gordin zordunketa horien zenbatekoen batura izango da.

Sei (6) hilabete naturaleko Hoberi-aldia bezeroa sustapen honetara atxikitzen den egunaren hurrengo hilabete naturaleko lehen egunean hasiko da. Adibide argigarri gisa, urtarrilaren 13an atxikitzen bada, hoberi-aldia otsailaren 1ean hasiko da, eta otsailaren 1a baino lehen helbideratzen den edozein zordunketa ez da berrikusiko/hobarituko.

BBVAren sustapen eskusiboa da.

2. Norentzat da?

BBVAan alta eman eta 2024ko maiatzaren 13tik 2024ko abenduaren 31ra bitartean (aurrerantzean, "**Indarraldia**") BBVA Negocios Ongietorri kontua (aurrerantzean, "**Kontua**") kontratatzen duten 18 urtetik gorako autonomoentzat, aurrerago zehazten diren betekizunak betetzen badituzte eta Sustapen honetara atxikitzen badira.

Sustapen hau baliteke bateraezina izatea beste sustapen batzuekin. Gainera, BBVAren esku egongo da horiek zehaztea.

3. Nor dago parte hartzetik baztertuta?

- Sustapen honetan parte hartzetik kanpo geratuko zara, baldin eta indarraldian zehar eta hobaria eman arte BBVAren aurrean zordun bazara mugaeguneratutako eta eska daitekeen edozein kopururengatik. Kasu horretan, hobaria jaso aurretik erregularizatu beharko duzu egoera. Hobaria ordaintzeko data iritsita zorra erregularizatu ez baduzu, zorra jasotzeko eskubidea galduko duzu eta ez zaizu ordainduko.
- Sustapen honetan parte hartzetik kanpo geratuko zara Hobaria ordaintzeko data iristen denean helbideratutako edozein zordunketa itzultzeko agindu baduzu edo BBVAren kontuan helbideratutako edozein zordunketa kargatzeko agindua ezeztatu egin baduzu.
- Sustapen honetan parte hartzetik kanpo geratuko zara hura antolatzen aritu bazara edo BBVAren edo haren enpresa taldearen jarduneko langilea edo aurretik erretiratutakoa bazara.
- Sustapen honetan parte hartzetik kanpo geratuko zara hori hasi aurreko 6 hilabeteetan bezero gisa baja eman baduzu.

4. Zer egin behar duzu Sustapenera atxikitzeko?

Sustapenera atxikitzeko buletin hau 2024ko abenduaren 31 baino lehen sinatzea. Sustapena data horretan amaitzen da.

5. Zein baldintza bete behar dira Sustapenez gozatzeko?

Sustapenean parte hartu ahal izateko, baldintza hauek bete behar dituzu:

- BBVAren bezero berria izatea gutxienez Sustapen hau hasten den egunetik, bbva.es, m.bbva.es edo BBVAren aplikazio mugikorren bidez (horretarako, ziurtatu BBVAren aplikazioa zure mugikorrean instalatuta duzula). Ez badaukazu, deskarga ezazu denda ofizialetatik; Google Play Store eta App Store, Android eta iOS gailuetarako, hurrenez hurren. Sustapen hau www.bbva.es webgunean ere kontratatu ahal izango duzu.
- Sustapena hasi aurreko sei (6) hilabeteetan BBVAren bezero gisa baja eman ez izatea.
- Lege-oinarriak onartzea Indarraldian eta jarduera hauek gauzatzea:
 - Alta egitea bbva.es, m.bbva.es edo aplikazioan.
 - Informatu eta balidatu "AUTONOMO720" sustapen-kodea bezero berriaren alta-prozesuan zehar Bankuak horretarako gaituta dituen kanaletan. Sustapen-kode hori webguneke gune publikoaren eta BBVAren app-aren ataletan egongo da eskuragarri.
 - Gutxienez zordunketa bat helbideratzeko agintzea, eta BBVAko kontuaren bidez ordaintzea, zure zergarekin edota gizarte-aseguruekin lotuta, baldintza hauetako lehenengo atalean adierazitakoen artean.

6. Zer abantaila eskaintzen ditu?

Arestian azaldutako baldintzak betez Sustapenera epe barruan atxikitzen bazara, Hobaria jasoko duzu, zeina Kontuan abonatuko baitzaizu "Sustapen komertzialaren Hobaria" kontzeptupean, eta oharretan "720 €-ko Autonomo Sustapenaren ordainketa".

BBVAK hileru egiaztatuko du baldintzak betetzen direla, eta, lehen paragrafoan zehazten den moduan, hilabete natural bakoitzeko lehen egunetik hasiko da ezarritako Hobari-aldi bakoitzerako. Beraz, zordunketaren bat ez bada hilerokoa (bi hilean behingo kargua, hiruhilekoko, urtekoa, etab.), kargua egin den Hobari-aldirako bakarrik kontabilizatuko da.

Parte-hartzailerik ez balego, BBVAK eman gabe utzi ahal izango du Sustapena.

7. Noiz jasoko duzu Hobaria?

Hobaria jasotzeko, Lege-oinarri hauetan aurreikusitako baldintzak bete beharko dira, eta ezarritako Hobari-aldi bakoitzerako (ondoaz ondoko hilabetea) baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren ordainduko dizu Hobaria BBVAK, ondoz ondoko hilabete bakoitza amaitzen denetik zenbatzen hasi eta, gutxienez, zazpi (7) eguneko eta, gehienez, hamabi (12) hilabeteko epean.

Hobaria ezingo da aldatu, nahastu edo konpentsatu. Hobariari uko egiten badiozu, horren ordez ez zaizu besterik eskainiko.

8. Zer dakar Lege-oinarriak onartzeak?

Lege-oinarri hauek onartuta, haiekin ados zaudela adierazten da, eta ontzat ematen da BBVAren irizpidea haiek interpretatzean egon daitekeen edozein gatazka ebazteko. Parte-hartzaile gisa, eta hala dagokionean, BBVAK eman ditzakeen jarraibideak bete beharko dituzu.

BBVAK eskubidea du zu deskalifikatzeko, hark hala nahi izanez gero, Promozioa manipulatzeko baduzu, hura manipulatzeko saiatzen bazara edo Lege-oinarri hauetako zehaztapenak eta baldintzak urratzen badituzu.

BBVAK beharrezko erabakiak hartu ahalko ditu Sustapen honen garapenean sor daitezkeen desadostasun edo gatazkak konpontzeko, betiere behar ez bezala kaltetzen ez bazaituzte eta bidezkoak badira.

Aurretik aplikagarriak ziren parte hartzeko baldintzak betetzen ez badituzu edo lege oinarri hauetan ezarritako baldintza guztiak betetzen ez badituzu, ez duzu eskubiderik izango hobaria jasotzeko oinarrietan ezarritako baldintzetan.

9. Zer zerga du Hobariak?

Hobariak diruzko kapital higigarriaren etekin izaera izango du pertsona fisikoentzat, % 19ko atxikipena izango du eta emaitzazko likidoa ordainduko dio bezeroari.

Establezimendu iraunkorrik gabeko Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren (EEEZ) subjektu pasiboentzat, hobaria atxikipenik gabeko errendimendua izango da, Espainian bizi ez izana Egoitza Fiskalaren Aitorpenaren (EFA) bidez egiaztatzen den neurrian. Aitorpenak indarraldi mugagabea izango du, aitortutako inguruabarrak aldatzen ez diren bitartean. Espainian bizi ez izana ez bada egiaztatzen, Hobariaren ordainketak atxikipena izango du (gaur egun % 19ko tasa)

BBVAK egingo dizu kontuan hobariaren zenbateko gordinaren ordainketa eta dagokion zerga-atxikipena, eta zenbateko hori Altxorrean sartuko du zure izenean. Hala, eskura jarriko du Pertsona Fisikoen Errentaren Zergaren edo Sozietateen gaineko Zergaren aitorpenerako dagokion zerga-informazioa.

Hobaria lortzeko bezeroaren fiskalitatean izango dituen ondorio fiskalak bezeroaren kontura izango dira, eta, beraz, BBVAK ez du inolako erantzukizunik izango.

Hobaria duten pertsonak alde batera utzita, sustapenean parte hartzen duen bezeroari aplikatuko zaio klausula honen edukia, zerga-ondorioetarako.

10. Zein da erreklamazio-aldia?

Sustapenaren erreklamazio-aldia indarraldia amaitu eta hamabi (12) hilabete igaro ondoren amaitzen da.

11. Nola tratatuko dira izaera pertsonaleko zure datuak?

Banco Bilbao Vizcaya Argentaria, SA (egoitza soziala: San Nikolas plaza 4, 48005 Bilbo; posta elektronikokoaren helbidea: consultasgenerales@bbva.com) da Sustapen honetan parte hartzeko ematen dizkiguzun datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna.

BBVAk datu pertsonal hauek tratatu behar ditu: izen-abizenak, adina, IFZ/AIZ/Pasaportea, BBVAko kontu-zenbakia eta 1. paragrafoan adierazitako zerga edo gizarte-aseguruen ordainketari lotutako zordunketak, BBVA kontu horretan helbideratuta daudenak, sustapenaren antolaketa, kontrola eta jarraipena egiteko eta, eskatutako baldintzak betez gero, hobaria emateko.

Sustapenaren legitimazio-oinarria kontratu hau gauzatzea da.

Tratamendu jakin honetarako zure datu pertsonalak kontratu-harremana indarrean den bitartean gordeko ditugu. Epe hori igarotzen denean, blokeaturik jarraituko dute legezko betebeharrak betetzeko beharrezko diren datu pertsonalak, legezko preskripzio epeetan, erreklamazioak egiteko edo legezko ekintzak burutzeko xede soilarekin. Legezko preskripzio aldia igarotakoan, zure datuak suntsitu egingo ditugu.

BBVAk ez dizkie jakinaraziko datu pertsonalak hirugarrenei, salbu eta legeak behartzen bagaitu edo horretarako dagokion baimena eskatzen bada.

Datuak atzitu, zuzendu, ezabatu, tratamenduari aurka egin eta hura mugatzeko eta datuak eramateko eskubideak erabili ahal izango dituzu, idazki bat bidaliz derechosprotecciondatos@bbva.com helbidera. Sustapenaren kudeaketarako beharrezkoak diren datuak ezabatzen badira, Sustapenean automatikoki baja ematea ekarriko du. Zure datu pertsonalak araudiaren arabera tratatu ez ditugula uste baduzu, BBVAko Datuak Babesteko Ordezkariekin harremanetan jarri ahal izango zara www.bbva.es web orriaren bidez, Datu pertsonalak/DPO kontaktua atalean. Edonola ere, erreklamazio bat aurkeztu ahal izango duzu Datuak Babesteko Espainiako Agentzian (www.aepd.es).

12. Zer gertatzen da iruzur egiten baduzu edo iruzurra badago?

BBVAk edozein anomalia atzematen badu edo uste badu hori normaltasunez garatzea eragozten ari zarela, alde bakarretik ezabatu ahal izango du sustapenean egiten duzun esku-hartzea. Ondorio horietarako, BBVAk beharrezko euskarri teknologikoak gaitu ditu iruzurrekoa, irregularra edo dolozkoa izan daitekeen jarduera hautemateko, Hobaria zilegi ez den eran lortzeko asmoz parte-hartzea nahastu nahi denean. Horregatik, BBVAk beretzat gordetzen du zure erregistroa ezabatzeko eskubidea, ikusten edo susmatzen badu aurreko paragrafoan azaldutakoaren ildotik jarduera irregularra duzula.

13. Zein da BBVAren erantzukizuna Sustapen honetan?

BBVAk ez du bere gain erantzukizunik hartzen Sustapenean parte hartzeari eragin diezaioketen galeren, narriaduren, lapurreten, atzerapenen edo hirugarrenei edo Interneti egotz dakiekeen beste edozein inguruabarren gainean.

BBVAk beretzat gordetzen du edozein partaidetza edo edozein parte-hartzaile baliogabetzeko eskubidea, baldin eta bezeroak iruzurrezko erabileraren susmoa badu.

Era berean, BBVAk ez du inolako erantzukizunik izango, hartutako segurtasun-neurriak gorabehera, parte-hartzaileek zerbitzuak eta edukiak behar ez bezala erabiltzeagatik gerta daitezkeen kalte eta galerengatik, eta, bereziki, nahiz eta ez izan modu eskusiboan, edozein komunikaziotan erabiltzaile batek hirugarren baten nortasuna ordezteagatik sor daitezkeen kalte eta galerengatik.

BBVAk ahalmena du Lege-oinarri hauetan aurreikusi gabeko edozein egoera ebazteko.

Onartu egiten duzu BBVAk geroratu, laburtu, atzeratu, aldatu, ezeztatu edo eten egin dezakeela Sustapena, bere kontroletik at dauden ezinbesteko arrazoiak direla eta; BBVAk, bere aldetik, gorabehera horretaz zuri lehenbailehen jakinarazteko konpromisoa hartzen du.



Lege-oinarri hauetako edozein klausula baliogabetzat jotzen bada, indarrean jarraituko dute horrek eragiten ez dien gainerako klausulek.

14. Oinarri hauek onartzea

Sustapenera atxikitzean Lege Oinarri hauek onartzen direnean, haiekin ados zaudela adierazten da, eta ontzat ematen da BBVAren irizpidea haiek interpretatzean egon daitekeen edozein gatazka ebazteko.

15. Legeria eta forua

Edozein desadostasunerako, Espainiako legeria aplikatuko da bezeroaren bizilekuko auzitegi eta epaitegietan.